

KORONABIRUSA *ALE BEREZIA*



COVID-19

ESTERIBARKO UDAL IN-
FORMAZIO ALDIZKARIA

I. urtea – 1. zenbakia

Argitaratzailea: Esteribarko Udala – Orreagako etorb., 13 13 - 31630 - Zubiri – Tel.: 948 30 40 71
www.esteribar.org

Diseinua eta erredakzioa:

Argus CCI Ediciones

Argazkiak:

Blanca López
Artxiboa

Inprimatzailea:

Huarte Gráfica

Lege Gordailua:

NA 899-2020

TELEFONO INTERESGARRIAK

- Esteribarko Udala (Zubiri) 948 304 071
- Gizarte Zerbitzuak 948 304 071
- Euskara Zerbitzua 948 304 071 Luzp. 5
- Esteribarko Kiroldegia 948 304 007
- Ollokiko Gizarte Etxea 948 304 007
- Erregistro Zibila 948 304 071
- Bake Epaitegia 948 304 071
- Esteribarko Haur Eskola 948 361 575
- Gloria Larrainzar Ikastetxea 948 304 513
- Zubiriko kontsultategia 948 304 106
- Larrasoañako kontsultategia 948 304 342
- Eugiko kontsultategia 948 304 319
- Uharteko Osasun Etxea 948 335 033
- Botika: Lda. Liso (Zubiri) 948 304 226
- Taxia: F. Ventana (Zubiri) 609 447 058
- Lineako autobus zerbitzua A. Artieda 948 300 287

KONTZEJUAK

- Antxorizko Kontzejua: Ana Gurbindo | concejodeantxoriz@gmail.com
- Eugiko Kontzejua: Estíbaliz Iribarren | concejodeeugi@gmail.com 948 304 047
- Inbuluzketako K.: Fran Equisoain | franequi@hotmail.es 948 304 139
- Iragiko Kontzejua: David Sánchez | concejoiragi@gmail.com
- Larrasoañako K.: Argiloa Mangado | concejodelarrasoaña@gmail.com 699788034
- Saigosko Kontzejua: David Urio | davidurio@yahoo.es
- Sarasibarko Kontzejua: Enrique García | concejo.sarasibar@gmail.com
- Zabaldikako Kontzejua: Cruz Zazpe | concejodezabaldika@gmail.com
- Zubiriko Kontzejua: Urtzi Arrieta concejodezubiri@gmail.com 948 30 43 78 (asteazkena)
- Urdaizko Kontzejua: Txus Arana | urdaitzurdaniz@gmail.com

ESTERIBARKO KONFINAMENDUAREN
ARTXIBOA OSATU NAHI DUGU

Esteribarko bizilagunok! Azkenean, argia ikusten ari gara

Mila esker hortxe egoteagatik! Zuen laguntza nahi dugu, bizitzen ari garen unearren gaineko lekukotasuna jasotzeko. Izan ere, denon artean, **#Esteribarko konfinamendua-ren#** artxiboa osatuko dugu: zer ideia sortu diren, zer kantu diren zuen inspirazio-iturri eta bultzagarri, liburuak, idazkiak, gutunak, argazkiak, bideoak eta bururatzen zaizuen guztia. Igorri ayuntamiento@esteribar.org helbidera, eta pozgarria izanen da zuetariko bakoitzari buruz gehixeago jakitea. Ederki ikasi baitugu eguneroko eguna dela garran tzitsuena; beraz, zuen bizipen guztiak gure ibarreko Ondare Immaterialaren eta historia-ren barnean sartuko ditugu, horixe baita gure asmoa. Udalak aukera izanen du bidal-tzen dituzuen materialak argitaratzeko, etorkizuneko belaunaldiek jakin dezaten zer eta nola bizi izan genuen.

ALKATEAREN AGURRA



Koronabirusari eskaini diogun ale berezi honen bidez hasi gara plazaratzen udal informaziorako aldizkaria, bizilagun guztiei gure ibarreko udal jardueraren, al-bisteen, ekitaldien eta bestelakoen berri emateko. Aldizkariak hainbat atal ditu. Besteak beste, udal informaziorako atala, turismo atala, kontzeju eta herrien atala, “gaur solaskide dugu...”, etab. Zenbaki berezia denez, hurrengo alean eta ondokoetan, bestelako formatua ikusiko dugu. Irekia dago zuen proposamenetara; beraz, bidali itzazue eta, horrela, denon artean, herritarrek parte hartutako argital-pena izatea lortuko dugu.

Esteribarko UIAk herritarren zerbitzuan egon nahi du, eta herritarrek berek auke-ratuko dute aldizkaria nola jaso, paperean nahiz formatu digitalean, webaren edo posta elektronikoaren bidez.

Lehen zenbaki honetaz baliatuko naiz Esteribarko herritarrok erakutsi duzun elkartasuna eskertzeko, lehen unetik buru-belarri aritu baitzarete gure Ibarreko jende ahulenaren alde, ataka gaiztoa izan baita egiazki, sekulan ikusi gabea.

Osasun, ekonomia eta gizarte arloko krisiari aurre eginen bazaio, jendea erabakien erdigunean jarriko duten akordioak beharko dira, pentsamolde politikoetatik harata eta helburu horri ez doazkion kontuetan indarrak alferrik xahutu gabe. Pentsatu behar dugu nola lagundu gure pertsonarik zaugarrienei, gure adinekoei, gure ostalari, enpresa eta tokiko denda eta saltokiei.

Herritarrengandik hurbilen gauden administrazioa garen aldetik, lagundu beharra daukagu, eta hortxe egon be-har dugu, konprometituak eta sortzen diren beharrei erantzuten, betiere herritarren zerbitzuan jarduteko erronka-ri eutsita. Aztertu eta aurreikusi behar dugu zer etorriko zaigun, ez dugu fidatu behar, zuhur jokatu eta arduratsu izan behar dugu, akordioak lortu, helmuga partekatuak eduki eta etorkizunari itxaropenaz begiratu.

MATILDE AÑÓN, ESTERIBARKO ALKATE ANDREA, ALKATEEK NAFARROAKO GOBERNUKO LEHENDAKARIAREKIN EGINIKO BILERAN IZAN DA

Arinaldiaren 1. fasea iritsitakoan, Nafarroako Gobernuako lehendakariak alkate guztiak deitu zituen Covid-19aren gaitzari buruzko bi-lera batera. Bertan, Matilde Añón Esteribarko alkateak ibarrerako eskakizunak azaldu zi-tuen. Hona hemen:

1.- **Estaldura mugikorra lurralde guztian:** Leku aunitzek oraindik ere ez dute estaldurarik, ezta 112ra deitzeko ere, ez baitago inolako antenarik. Herritarrek nahiz turistak gogoan.

2.- **Banda zabala:** herrietatik telelana ahalbi-detze aldera.

3.- **Ostalaritza, Donejakue Bideko aterpe-txeak:**

COVID-19 gaitzaren inguruko ekipamendue-tarako laguntzak eta zergen berrikuspena.

4.- **Dendak, autonomoak eta enpresa txiki eta ertainak:** COVID-19 gaitzaren inguruko ekipamenduetarako laguntzak, online sal-menta, webguneak sortzeko laguntzak, pres-takuntza, eta zergen berrikuspena

5.- **Hurbiltasuneko turismoa:** Turismo eredua birpentsatzea. Esteribar, Iruñeko hauspo gisa. Sustapena eta laguntzak.

6.- **Behar berriak dituzten pertsonak:** gizarte laguntza, beharrea daudenengana iritsiko dena.

7.- **Tresna informatikoak:** laguntzak herrita-rrendako, oro har, eta irakasle eta ikasleen-dako, bereziki.

8.- **Bidegorria N135ean:** Bizikleta bidezko mu-gikortasuna sustatzea, herrien artean, Iruñe-tik.

9.- **Haur Eskola:** Nafarroako Gobernuak bere gain hartzea. Arauketa orokorra.

10.- **Eskualdeko Hiri Garraioa.** Billabesetako edukiera neurri berriak direla eta, zalantza-z beteriko egoera da, udalaren aurrekontuan aurreikusia ez zegoen gastuak nabarmen eginen du gora. Nafar Gobernuari laguntzak sortzeko eskaera egin zaio.

ESTERIBARKO UDALA KORONABIRUSAREN AURKA

Bizi dugun kinka larria dela eta, Esteribarko Udalak hainbat neurri hartu ditu, osasun alerta honek eragin dituen ondorioak ahal den heinean arintze aldera.



Kirol zerbitzuak

Langileek jarrera ezin hobea erakutsi dute, jarduera normaltasunetik ahalik eta modurik hurbilenean egiten jarraitzeko. Eskola birtualak programatu ziren, eta Esteribarko Kiroldegiaren webgunearen bidez daude eskura. Klaseak jende guztiarendako dira irisgarriak, bazkideak izan ala ez. 9 bideo dira, saio hauek emateko: TonoFit, Fuerza/Hit/Core, Zumba, Pilates, Spinning, Gorputz jarrera zuzentzea, Yoga eta Dantza.

Entretenezko beste modu bat

Udalak, halaber, eta haurrak go-goan, magia saio bat antolatu zuen online Hodei magoarekin. Truku andana bat erakutsi zigun, arras magikoak. Bestalde, etxeko itzal antzerkia ere eman zen, Laura Villanueva antzezlearen eskutik.

Itxialdian, halaber, urteak bete dituzten gure bizilagunez oroitu gara. Horregatik, haietako bakoitzari zoriondu dugu gutun baten

bidez, eta operatxo bat ere igorri; zehazki, txikienei, nerabeei eta 70 urtetik gorakoei, guztiak ere konfinamenduan itxita baitzeuden. Horrela, tabletak haurrentzat; oihal ekologikoz egindako motxila nerabeentzat, eta zapi bana adinekoei, Esteribarko armarria brodaturik.

Esteribarko Kiroldegiak abonuen zati proportzionala itzuliko die erabiltzaileei, bai eta jarduera guztiei dagozkien kuotak ere.

Orreaga Musika Eskola

Orreaga Musika Eskola berehalakoan moldatu da egoera berrira eta klase birtualen bidez bete du bere jarduera. Gutunak jaso ditugu Udalean, irakasleek egindako ahaleginaren esker onean.



G. Zerbitzuen Mankomunitatea

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea lan betean ari da koronabirusak eragin dituen

egoera berriak moldatzeko. Adinekoekin telefonoz ari dira harremanetan eta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari eutsi zaio. Elikagaien Bankuan, Udaleko Zerbitzu Anitzetako langileak ari dira lankidetzan, bankuaren esanetara baitaude erabat.



Telefonoz hitz egiterik izan ez dutenekin ere saiatu dira harremanetan jartzen. Udalak animalia txikiendako pentsu banaketa kudeatu du (txakurrak, oiloak, untxiak...), pertsona zaurgarriek joan-etorrian ibili behar ez izateko.

Garbiketa zerbitzuak

Udala Ibarreko herri guztietako karririk desinfektatzeko lanean aritu da.

Matilde Añón alkateak hauxe erran digu: "Traktore bat alokatu genuen, atomizagailu batez hornitua, kale nagusiak ahalik eta higienizatuen mantentzeko, herri guztietara iristeko, bai eta ibarreko hiru enpresa handiendako aparkalekuetara ere".

Erabilera anitzeko langileek, gainera, motxila sulfatatzaileak erabili dituzte herri guztiak desinfektatzeko. Iruñerriko Mankomunitateak eta Iruñeko Udalak udal zerbitzu hori indartu dute eta, era berean, bi erakunde horiek lekurik jendetsuenak desinfektatzen jardun dute. Udalak eskerrak eman nahi dizkie bizilagunei, Udalak berak sortu duen informazioa zabalitzen laguntzeagatik: bandoak, oharak eta albisteak berehala iritsi dira herritarrenganaino, ibarrean dauden Whatsapp talde handiei esker; beraz, jendea ongi informaturik egon da.

Esteribarko Eguna. bertan behera

Aurten, Esteribarko Eguna bertan behera utzi behar izan da. Eugin ospatzekoa zen, ekainaren 14an. Ospakizunera bideratutako 10.000 euroko partida gaitz berriaren kontrako ekipamenduan erabiliko da, ibarreko ostalaritza enpresen artean banatzeko.



ZER DA WUHANGO KORONABIRUSA?

Iturriak: CNB-CSIC; N.G



Ñimiñoa da, 120 nanometroko tamaina baitu. Sudurraren, ahoaren eta begien bidez sartzen da gure gorputzean, pertsona kutsatuen arnas bideetatik heldu diren mikrotantak ukituz. Pertsona kutsatuak sintomadunak edo sintoma gabeak izan daitezke. Arnasketa hutsak, usinek eta ezulak eraginik, partikula birikoak airearen bidez transmititu eta gainazal-tan pausatzen dira. Gure eskuak birusaren transmisio bide dira, behin kutsatutakoan gure muki-mintzak ukitzen badiugu. Horregatik, oso garrantzitsua da eskuak maiz eta ongi garbitzea. Pertsona sintoma gabeak pandemiaren erronkarik handienetako bat izan dira. Izan ere, itxuraz sintomarik batere izan gabe, birusa zabaldu egiten dute, jakin gabe.

SARS-CoV-2 birusak COVID-19 izeneko arnas gaixotasuna eragiten du; biztanleriaren zati txiki batentzat hilgarria da, pneumoniatik eratorritako arnas sindrome bat eragiten baitu. Birusak arnas aparatuko ehun epitelialari erasaten dio, haren barnean sartu, ugaritu eta arnas arazoak sortzen ditu, arinak, larriak (pneumonia) nahiz kritikoak (SDRA).

Gure zeluletan sartzen da bai erreplikatzeko, bai zelulak suntsitzeko. Halaber, biriketako albeoloak kaltetzen ditu; horren ondorioz, ez dute oxigenorik ematen, eta odol-leko karbono dioxidoa ere ez dute ezabatzen. Hantura areagotzen bada, biririkak fluidoak, zornak eta zelula hilez betetzen dira, eta horrek arnas distres akutua eragiten du (SDRA), arnasketa trabatzen duena eta heriotza eragin dezakeena. Beraz, aireztapen mekanikoa behar da.

Gaitzaren aurkako borrokak bi arlo ditu. Lehenik, detekzio-testak, funtsezkoak baitira birusaren hedapena kontrolatzeko. Bi test mota dira: PCR izenekoak, birusaren ADN aztarnak atzemateko, eta bestetik, antigeno eta antigorputzen probak. Bestalde, txertoak sortzea. Hainbat bidetatik garatu liteke: batetik, birusa indargabetuz, txerto bektorizatuetan konbinaturik bestelako birus baten txertatutako koronabirusaren geneak. Bestetik, birusaren material genetikoa zuzenean erabiliz, proteina jakin batzuen eta laguntzaile baten bidez. Zailena ez da txertoa garatzea, baizik eta segurua eta eraginkorra izatea.

“Birus hau geldiarazteko eta etorkizunean etor daitezkeen kontra borroka egiteko, zer baldintzatan sortzen diren jakin behar da, eta horretarako, biodibertsitatearen gainean kontzientziatu eta huraxe sakon errespetatu beharra dago, giza jardueraren indarkeriaz haren efektu babesgarria suntsitu baita”.

Pandemia garaiotan, **elkarrekin laguntza emanez.** **Esteribar** buru-belarri ari da **bizilagunei** laguntzen

Ziurgabetasuna da nagusi garaiotan, eta ezezaguna zaigunaren aurreko beldurrak gu denok ukitzen gaitu. Ataka gaiztoan gaude, konfinaturik, jarduera ekonomikoa geldirik, elkarrekin ez egotera behar turik. Badakigu orain arteko bizimoldea daukagula arriskuan, baina egoeraren gaineko kontrola, behintzat, ez dugula galdu sentitzeko beharra daukagu. Gu natur ingurune zoragarrian bizi gara, halakoa baita gure ibarra, eta horrek pixka bat indartsuago sentitzeko parada ematen digu, segurtasun sentazio handiagoa ematen digu; bai gure herri handienetan, hau da, Ollokin, Zubirin, Eugin edota Larrasoañan, bai txikienetan, hala nola Gendulainen, Usetxin eta Iruren.

Hedabideen bitartez, denok ikusi dugu hirietan gertatu direla egoera kontrol gabe batzuk eta egoera askoz ere larriagoak ere bai. Harreman hurbilagoa dugu gure auzokideekin eta horrek babes handiagoa sentiarazten digu. Bi hilabete nekoso izan dira, baina era horretako egoera estresagarria denon artean eramangarriagoa egiten da.

Pribilegiatuak gara, leku handia dugu eta aunitzez ere harreman handiagoa daukagu inguratzen gaituen naturarekin. Udaletik ikusi dugu herritarrek hainbat ekimen abiarazi dituztela egunak eramangarriagoak izateko; batez ere, mendekotasun handiagoan daudenendako.

Gure esker ona agertu nahi diegu ibarreko herritarrei, ederki erantzun baitute. Herritar aunitzek eskaini baitio bere burua Udalari hasieratik beretik, zernahitan eta beharrean zegoenari laguntzeko. Esteribarko bizilagunak eta enpresak elkarrekin aritu dira laguntza emateko eta une gogorrek goxoa goak egiteko.

Iritsi da guztiei eskerrak emateko tenorea, erran behar baita ohore handia dela haiei guztiei Mila esker! erratea, mila esker bihotz-bihotzez, egoera hain zail hori goxoagoa egiteagatik. Horrenbestez, bihoa gure esker ona José Javier Celorrio sendagileari, Beatriz Olite erizainari eta Lehen Laguntzako gainerako langileei, pandemian arreta berezia eskaini diguzuelako.

Eskerrik asko Zubiriko elikadura-establezimenduei, hots, **Embutidos Arrieta**, **Embutidos Bacaicoa**, **Autoservicio Núñez** eta **botikari**, erosketa etxera eraman baitiete mugitu ezinean zebiltzanei. **Stivi**



eta **Manuel Esteribarko okinei**, ogia gure etxetara egunero ekartzeaz gain, udalak erositako maskara banatzen ere lagundu dutelako, haiei esker herritar aunitzengana iritsi baita.

Mila esker aunitz **Uharte-Esteribarko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko langile** guztiei, etengabe aritu baitira harremanetan ibarreko jenderik zaurgarrienarekin. Denak ere saiatu baitira nola-halako normaltasuna mantentzen eta, horri esker, askoz ere eramangarriagoa egin zaigu bizi behar izan dugun itxialdia.

Esteribarko bizilagun batzuek beren laguntza eskaini diote Udalari erabat era anonimoan; horregatik, haien jokamoldearen balioa hartu nahi dugu aintzat. Aterpetxe bat eskaini dute berrogeialdian zeuden pertsonen ostatu emateko. Haiei esker, elkartasuna hitz hutsa baino aunitzez ere gehiago izan da eta harro gaude gure bizilagunen artean gisako jendea egoteaz.

Eskerrak ere eman nahi dizkiegu **udal bulegoetako langileei**, telelanera egokitu baitira zerbitzua ematen jarraitzeko. Bihoakie gure esker ona bereziki **Zerbitzu Anitzetako langileei**, Zerbitzuen Mankomunitatearekin batera aritu baitira behar handieneko herritarrei laguntzen. Eta, jakina, **mila esker aunitz** elkartasunez jokatu duten **herritar guztiei**, bakoitza bere etxean gelditu baita kutsadurak saihesteko.

#NiEtxeanGelditzenNaiz

Esteribarko bizilagunak konfinamenduaz eta arinaldiaz mintzo



Urdaizko Kontzejuak festetako aurrekontuaren zati bat eman dio Udalari gizarte xedeetara bideratzeko. Txus Arana Kontzejuko alkatea da eta hauxe erran digu kontzejuaren erabakiaz: "Herriko festak ospatuko ez direnez, diru horren zati bat gizarte xedeetara bideratzea erabaki genuen. Udalari eskaini genion, Esteribarko bizilagunen beharrak estaltzeko. Zehazki, Kontzejuen mahaian elkarrekin erabakiko dugu zer xedetan erabiliko den."

Fermín Ventanak bere taxia eskaini du doan horren beharra zuten pertsonentzat. Azaldu digunez, "egoera horren aurrean, elkartasuna beharrezkoa da, laguntzeko tenorea baita. Taxiaren lana % 80 jaitsi da eta eskerrak Magnesitaserako lanean segitu dudan. Nire lan iturrietako bat, turismoa, arras desagertu baita, hau da, GR11 ibilbidea egiten duten erromesak eta turistak. Pazientzia izan beharko dugu eta itxoin egoerak hobera egin arte."



M^a José Liso botikak etxez etxe banatzen ditu sendagaiak, zerbitzu hori beti ematen da, adineko jendeari batez ere, baina krisi honetan askoz ere gehiago eraman dituzte, etxetik ateratzeko beldurraren eraginez. "Komunitate bat gara, eta onak eta txarrak hartu behar dira, heldu diren bezala. Nik poz-pez egin dut, lagundu beharra dago eta ahal dugun horretan laguntzen dugu. Jende gehienak lagundu nahi du, gehiena jende ona baita, pandemia honetan ikusten ari garen bezala."

Sara Redondo, Irozkoa, artisaua da eta bere lanak merkatu txikietan saltzen ditu, bai eta bere Facebook orrialdearen bidez ere. Hauxe erran digu: "Pandemiaren hasieran, ez zegoen, ez maskararik, ez txabusinarik, eta Erizaintza Eskolak deialdia egin zuen horrelako gauzak egiten laguntzeko. Nik amatxiren maindire batzuk baintuen, eta pentsatu nuen hura modu ona zela maindireak erabiltzeko. Eskolarekin harremanetan jarri, nire lana eskaini, eta pentsatu nuen Ibarreko Udalari ere ongi etorriko zitzaioela. Izan ere, Gizarte Zerbitzuetako eta Zerbitzu Anitzetako langileek horrelakoak behar zituzten, baita dendariak eta okinek ere. Zaragozan gauza berean ziharduen lagun batek patrioiak igorri zizkidan eta ekin nion. Artisauen egoera dela eta, hauxe proposatu du: "Zoragarria litzateke Ibarrean merkatu txikiren bat antolatzea; karrikan segurtasun tartearak mantendu daitezke eta gure egoera arintzeko bide bat izanen litzateke".



Fran Equisoain abeltzaina da eta Inbuluzketako Kontzejuko burua. Herrian bizi da eta ustiategia ere hantxe dauka. Hauxe erran digu: "Konfinamenduan, ia lan erritmo berean segitu dut. Salmentei dagokienez, harategietan normal samar saldu dira artxea, oilaskoa eta txerriak. Arazorik handienak arkumeetan izan ditugu, produktu hori batez ere ostalaritzan saltzen baita, eta hor salmentek beheiti egin dute nabarmen; batez ere esneko bildotsean. Eguberrietako kanpainara arte itxoin beharko dugu pixka bat suspertzen hasteko".



Marta Pérez Baena Idoiko bizilaguna da eta mugikortasun arazo bat dauka. Erran digu konfinamenduan Esteribarko jendearen elkartasuna jaso duela. Ibarreko denda eta Gizarte Zerbitzuei eskerrak eman dizkie konfinamendua nolabaiteko normaltasunez

bizitzen lagundu diotelako. “Herri txiki batean bizi naiz, eta horrek abantaila aunitz ditu eta auzokideen laguntza oso nabarmena izan da”. Bere erranetan: “Inguruabar berriekin bat jokatu beharra dago”. Bere iritziz, herrietako berezko jarduera ekonomikoa gehiago sustatu eta babestu beharko litzateke: hau da, abeltzain eta nekazariari laguntza ematea, jarduera horiek landa ingurunea bizirik mantentzen baitute. “Ezin gara egon turismoaren menpe hain hein handian, hori bukatu da, beste ekoizpen jarduera batzuk gehiago sustatu behar dira. Badugu bide luzea egiteko, egoera hau bukatzeko. Eta hauxe gehitu du: “Badugu zer ikasi handia adinekoengandik eta bizitzaren aurrean erakusten duten jarreratik”. Politikariek herritarrei begiratu beharko lieketela pentsatzen du: “horretarako baitaude dauden tokian; bestela, beste zerbaitetan aritu beharko lukete”. Osasuna arloko langileen lana ere eskertu nahi du; horren haritik, “pribilegiatuak gara eta horixe diot, horixe bizi izan dudalako”.



Alberto Pérez Zugasti Zubirikoa da, eta **Mikel Sánchez Nestar** adiskidearekin batera, zaletasun bat dauka: 3D inprimagailuak. Biek ere pentsatu zuten horixe izan zitekeela krisi honetan elkartasunez

jokatzeke modua.

CoronavirusMakers.org aditu sarerik handiena da munduko open source teknologia ireki eta doakoan. Boluntarioek 2020ko martxoan eratu dute, larrialdietarako materiala sortzeko. Bada, ekimen herritar bat abiarazi zuten telegram eta whatsapp bidez. 20.000 ikerlari, garatzaile eta ingeniari baino gehiago ari dira elkarrekin larrialdietarako osasun materiala egiten, pandemiaren aurka borrokatze aldera. Guztien artean, 500.000tik gora babes-pantaila fabrikatu dituzte Espainia guztirako. AyudaMakers Navarra Nafarroan autokudeatutako boluntarioen taldea da. Alberto eta Mikel taldekide dira, eta horrelako piezak aritu dira eskuzabaltasunez fabrikatzen, bai beren 3D inprimagailuekin, bai Gloria Larrainzar ikastetxeak dohaintzan emaniko azetatoekin. Pantailak Zubiriko dendetan eta kontsultategian banatu dituzte.

“CoronavirusMakers-en deialdiarekin bat egin genuen, lagundu egin nahi genuelako; hurbilen zeudenak beharrean baitzeuden”.

Pilar Ruiz Berdún, Ilarrazko bizilaguna, ingeniaria da eta energia berriztagarrietako enpresa baterako lan egiten du. Bere lan jarduera ez da gelditu, elektrizitatea sortzea funtsezko lanen artean dagoelako. Baina beste modu batez egin du bere lana: telematikoki. “Oso esperientzia ona da. Frogatzen ari da telelanak produktibitatea handitzen duela eta, aldi berean, kontziliatzen laguntzen du. Hasieran, eromena izan zen pixka bat, zaila baitzen ADSL linea batekin bost lagun telelanean aritzea. Baina zorionez, zuntz optikoa iritsi, eta akabo arrakala digitala. Orain, lehen mailako herri-tarrak gara. Banda zabaleko konexioa garapen eragilea da. Enpresa batzuek arras ongi funtzionatu lezakete hemengo edozein herritatik, konektatuak baleude.

“Telelana gure artean geldituko da. Arinaldian, nire enpresak aukera eman digu itzultzeko, baina nik telelanean segitzea aukeratu dut”.

Pilarrek hiru alaba ditu. Nola eragin du konfinamenduak haien jardueretan? Aurrez aurreko klaseak ordezkazekin badira ere, egoera oso ongi moldatu da. Izan ere, Hezkuntza Departamentuak Chromebook batez hornitzen du DBHra iristen den ikasle bakoitza. Hori hodeian lan egiteko portatil txiki bat da. Guztiz egokia da. Izan ere, tresna horren bidez, eta Classroom plataformarekin, handiek ez dute inolako arazorik izan klaseei jarraitzeko. Txikia, berriz, lehen hezkuntzan ari da, eta materialak eta etxeko lanak klaseko blogean argitaratzen dizkiote. Zalantzak posta elektronikoz irakasleei galdetu, eta lanak ere bide beretik bidaltzen ditu”.

“Eskolaz kanpoko jarduerari dagokienez, txarrena kirola utzi behar izatea izan da. Orreaga musika eskolako klaseek ere segitu dute baina urrutitik. Tamalgarria da ikasturte bukarako kontzertuak galtzea, baina hori alde batera utzita, zoragarri funtzionatu du. Eskertzekoa da irakasleek egindako ahalegina, inor bazterrean ez uzteko. Beste gauza on bat: ia bi ordu aurrezten ari naiz egunero joan-etorrietan.”

“Nire ustez, oso zorionsuak gara, hemen bizi baikara. Konfinamendua oso eramangarria egin zaigu”.



Unai Esain Erreak 11 urte ditu eta Zubiriko bizilaguna da. Pilotan jokatzea du gustuko. Bigarren urteko alebinetan dabil, Esteribarko Pelotazale Klubean. Gurasoak arras pilotazaleak ditu. Aita zurgina da eta, garajejan, zurezko frontoi

bat egin dio, jokatzen segi dezan eta eskuak sasoian mantentzeko, kirol horretan guztiz garrantzitsuak baitira. Konfinamenduan, gutxienez bi orduz aritu da egunero pilotan. Unai haxe erran digu, irribarra ezpainetan: “Koronabirusaren erruz, eskolako klaseak galdu ditut, baina egunero entrenatu dut pilotan, Esain Frontoian”.